

#RespiraCultura
#KulturaArnastu

KUL TUR

2021

Ekainak 18 / Irailak 4

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Ongi erroturiko kultur programa, urtero berritzen dena. **Uda eta jaiekin bat egiten duen kultur programa, Nafarroako lurak berezkoa duen paisaien aniztasuna erakusten duena.**

2020ko edizioan, KULTURrek 4.300 lagun baino gehiago bildu zituen, segurtasunez eta arduraz bildu ere, musikaren eta arte eszenikoen inguruan. Eta, beti bezala, parte hartu zuten herriek eskainitako agertokieta egin ziren emanaldiak, herriek beren onena eman baitzuten artisten eta ikus-entzuleen arteko topaketa haiek ahalbidetzeko, arras beharrezkoak izan zirenak pandemiaren testuinguru ziurgabe eta kezagarrian.

2021ean, **KULTUR bideari lotu zaio berriz, Nafarroako bideei eta Donejakue bideari, Xacobeo 2021-22aren abaroan.** Itzuli da bertako herritarrei eta bisitatzen gaituztenei lagun egiteko, denek ere aukera izan dezaten eskaintza kultural eta turistiko honetaz gozatzeko: Vianako Printzea Erakundea-Kultura

Zuzendaritza Nagusiak gustagarri izan dadin betiko ilusio berberaz prestatu du Turismo Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan.

Aurten, inoiz baino gogo handiagoz gonbidatzen zaitugu uda honetako eskaintza zabalari erreparatzera, Nafarroako eta beste toki batzuetako artista ugari arituko baitira, eta aukera paregabea izanen duzu musika-taldeak eta dantza-forma berriak ezagutzeko. Eta hori guztia, **gure lurraldean barrena ibiliz ekainaren 18tik irailaren 4ra arte luzatuko den bidaia batean.**

Arte plastikoek beren tokia izanen dute, eta berritasunak ere ekarriko dizkizugu: **Bertizko Lorategi Botanikoan, "Azken eguzkilorea" izeneko historia sortzeko prozesuan murgiltzen ahalko zara uztailearen 1etik abuztuaren 31ra, Gua-Mía-Bu artistaren pintura-lan digital horren ibilbide osoa ikusten ahalko duzu-eta, hasieratik ezagutuz nola sortzen den obra hori, leku, mito eta kondaira ederren ondare eta natur balioak islatzen dituen.**

Gozatu KULTUR 2021ekin. Arnastu Kultura.



Eka

**KUL
TUR**
2021

18 or Hogei Berriro

BERA 20:30

25 or Mû Mbanda feat Javier Colina, Juan Carlos Aráçil, Jesús Mañeru. Nô Tchou

TAFALLA 20:00

25 or Iñaki Diéguez Hirukote Akustikoa

OLAZTI/OLAZAGUTÍA 20:00

26 Lr Las hijas de Bernarda Arántxa Villanueva dantza konpainia

ESTELLA-LIZARRA 21:30



BISITA ERDI AROKO AUZOETARA

Lizarrako turismo bulegoa. 18:00. Prezioa: 5 €
Gutxieneko parte-hartzaileak 10

IZEN-EMATEA: www.visitarestella.com

26 Lr Juárez

CORTES 21:30



**GAZTELURAKO BISITA ETA ERAKUSKETA
CERRO DE LA CRUZ ARKEOLOGIA-AZTARNATEGI**

Gazteluko ate nagusia. Erakusketa: 10:30 /
Gaztelurako bisita: 12:00 / 3 € jarduera

IZEN-EMATEA:

www.castillodecortes.com / T. 676 38 15 63



Uzt

**KUL
TUR**
2021

2 or The Eclectic Celtic Band

MARTZILLA 21:00

 **BISITA GAZTELURA**

Martzillako Gaztelua. 20:00 / Prezioa: 3 €

IZEN-EMATEA:


marcilla.es / cultura@marcilla.es

T. 948 71 35 45

2 or Azken eguzkiloŕea Gua-Mia-Bu

BERTIZKO JAURERRIAREN JAUREGIA

UZTAILAREN 1ETIK ABUZTUAREN 31RA

 **ESPOSIZIOAREN INAUGURAZIOA**

18:00etan. Oberena dantza taldearen emanaldia

3 Lr Demodé Producciones Incorŕectas

PUENTE LA REINA/GARES 21:00

 **BIDEAK BILTZEN: BISITA GIDATUA**

Garesko Turismo Bulegoa. 17:30 / Prezioa: 1 €


IZEN-EMATEA:

turismo@puentelareina-gares.es

T. 948 34 13 01

3 Lr Carlos Arriezu Baztan

FITERO 21:00

 **IBILALDI GIDATUA: "LEKU XARMANGARRIAK"**

Fiteroko Turismo Bulegoa. 9:00 Luzera 9 Km (2:30 ordu) /
Prezioa: 10 € / Gutxieneko parte-hartzaileak 4

IZEN-EMATEA:

fitebike.es / fitebikerutas@gmail.com

T. 618 27 98 33 / 948 08 88 05



Uzt

**KUL
TUR**
2021

8 og

Astor Piazzola omenaldia

VALTIERRA 20:00

9 or

Trío Sensory

UJUÉ/UXUE 20:00



BISITA GIDATUA SANTA MARÍA ELIZARA

Santa María Eliza.18:30

Prezioa: 9 € heldua eta 5€ 11 eta 17 urte artekoak
Gutxieneko parte-hartzaileak 4

IZEN-EMATEA: dinamicnavarra.com /
info@dinamicnavarra.com / T. 623 19 94 08



10 Lr

Broken Brothers Bräss Band

SALINAS DE ORO/JAITZ 20:00



**BISITA GIDATUA GIRONES GATZATEGI
EKOLOGIKOETARA ETA DASTAKETA**

Gatzategia.18:00

Prezioa: 4 € / Gutxieneko parte-hartzaileak 4

IZEN-EMATEA: salinasgirones.com / info@salinasgirones.com /
T. 948 35 71 39 / 657 60 60 55



10 Lr

Superácid

MENDIGORRIA 21:00



BISITA ANDELÓS ERROMATAREN HIRIRA

Andelosko arkeologi museoa. 10:30 / Prezioa: 4 €

IZEN-EMATEA: guiartenavarra.com /
info@guiartenavarra.com / T. 948 74 12 73




Azken eguzkiloréa



**BERTIZKO JAURERRIAREN JAUREGIA
LORATEGI BOTANIKOA ETA ERAKUSTARETOA**





Uzt

**KUL
TUR**
2021

16 or **Basabi** **Kronos**

OCHAGAVÍA/OTSAGABIA 22:00



BISITA GIDATUA HERRIRA

Otsagabia turismo bulegoa. 18:30
Prezioa: 1 € / Gutxieneko parte-hartzaileak 10

IZEN-EMATEA:
oit.ochagavia@navarra.es
T. 948 89 06 41

17 Lr **Alberto Rodríguez** **Purroy & Banda** **Instantánea**

VIANA 20:00



BISITA GIDATUA HERRIRA


Viana turismo bulegoa. 12:30
Prezioa: 2 € / Gutxieneko parte-hartzaileak 10

IZEN-EMATEA:
turismoycultura@gmail.com
T. 948 44 63 02

Azken eguzkiloréa



BERTIZKO JAURERRIAREN JAUREGIA
LORATEGI BOTANIKOA ETA ERAKUSTARETOA



Uzt

**KUL
TUR**
2021

23 or Flaming Shakers

ALTSASU/ALSASUA 20:00

24 Lr Zorongo Experiencia Xacobeo

ORREAGA/RONCESVALLES 19:00

 BISITA GIDATUA ORREAGAKO MULTZORA
ETA ALTXOR-MUSEORA

Priorearen etxearen leihatila. 16:30

Prezioa: 5,50 €

IZEN-EMATEA:

roncesvallesorreaga.blogspot.com




auriaorreaga@gmail.com

T. 948 79 04 80 / 670 28 99 97

Azken eguzkiloréa



BERTIZKO JAURERRIAREN JAUREGIA
LORATEGI BOTANIKOA ETA ERAKUSTARETOA



Uzt

**KUL
TUR**
2021

30 or

Juan Mañ Beltrán

Kostaldeko Soinuak

ZUGARRAMURDI 17:00

31 Lr

Anne Etchegoyen

Emazte

ELIZONDO (BAZTAN) 20:00



BISITA GIDATUA GAZTELURA ETA MUSEORA

Amaiurko Museoa. 17:00 (Gaz.) / 12:30 (Eus.)

Prezioa: 6 € / Gutxieneko parte-hartzaileak 2

IZEN-EMATEA:

valledebaztan.com

museoa@amaiur.eus

T. 641 34 59 83

31 Lr

Andueza-Jaso-Escrich

Trío

IRACHETA (LEOZ)

PILOTALEKUA. 19:00



EZAGUTU VALDORBAKO ARTE ERROMANIKOA

Leoz. Orisoain. 10:00

Prezioa: 5 €

IZEN-EMATEA:

valdorba.org

asociacion@valdorba.es



T. 626 15 38 09

Azken eguzkiloréa



BERTIZKO JAURERRIAREN JAUREGIA

LORATEGI BOTANIKOA ETA ERAKUSTARETOA



Abu

KUL
TUR
2021

5 og

La orquestina de la abuela Pina

ISABA/IZABA 20:30

6 or

Tenpoñá

Berñiro asma nazazu

LESAKA 20:00

7 Lr

Suakai

ORBAIZETA 19:00



BISITA ILARGIPEAN

Orbaizeta. 21:00.

Prezioa: 30 € / Gutxieneko parte-hartzaileak 3

IZEN-EMATEA:

itarinatura.com / itarinatura@yahoo.com

T. 660 26 87 50

7 Lr

The Ribbons

LOS ARCOS 21:00



BISITA GIDATUA SANTA MARÍA ELIZARA

Santa María eliza, Los Arcos. 17:00tik 19:00etara,
ordu erdiro. Doan

IZEN-EMATEA:

T. 948 64 08 68 / 948 64 00 21

Azken eguzkiloréa



BERTIZKO JAURERRIAREN JAUREGIA
LORATEGI BOTANIKOA ETA ERAKUSTARETOA



Abu

KULTUR
2021

12 og

Joaquín Taboada 3 en diálogos

RONCAL/ERRONKARI 19:00



13 or

Mielotxin órdago

RIBAFORADA 22:00



FONTELLASEKO EL BOCAL-ARI BISITA GIDATUA

Fontellas. 10:15

Prezioa: 10 € / Gutxieneko parte-hartzaileak 10

IZEN-EMATEA:

tudeguia.com / tudeguia.susana@gmail.com / T. 606 00 45 58



14 Lr

Diego Arbizu eta Pascual Jover

LEIREKO MONASTERIOA 19:45



BISITA GIDATUA MONASTEGIRA ETA
LEYREKO LIKOREA ETA PINTXO DASTAKETA

Monategiko harrerelekuan. 17:30 Bisita gidatua, jarraian

Leyreko likorea eta pintxo dastaketa. 19:00 Bezperak Kantu

Gregorianoan. Bisita gidatua: 3,80 € / Dastaketa: 3 €

Gutxieneko parte-hartzaileak 10

IZEN-EMATEA:

monasteriodeleyre.com / visitas@monasteriodeleyre.com

T. 948 88 41 50



16 or


Hagoan

LEKUNBERRI 20:00



EZAGUTU LEKUNBERRIREN ONDAREA ZURE KABUZ
QR BIDEZ (Doan)

IZEN-EMATEA: lekunberri.eus / T. 948 50 72 04



Azken eguzkiloréa



BERTIZKO JAURERRIAREN JAUREGIA
LORATEGI BOTANIKOA ETA ERAKUSTARETOA



Abu

**KUL
TUR**
2021

19 og
Trâvellin' Brothers
1001 Nights

CORELLA 22:00



20 or
JAC Raw

DONAMARIA 20:00



20 or
Los Flamingos

SANGÜESA/ZANGOZA 20:30



BISITA GIDATUA GAZTELURA

Xabierreko gaztelua. 11:30 eta 16:30
Prezioa: 5 €

IZEN-EMATEA:

javier.es / T. 948 88 40 24

21 Lr
Gandeia

ORGI (LIZASO) 12:00



SLOW FOOD JANARIA ETA GAZTA TAILERRA

Ultzama abeletxe eskola (Lizaso). 14:00
Helduak: 30 € / Haurrak: 12 €

Gutxieneko parte-hartzaileak 10 / Gehienez 35


IZEN-EMATEA:


granjaescuelaultzama.com /
info@granjaescuelaultzama.com
T. 629 12 64 99

Azken eguzkilorëa



BERTIZKO JAURERRIAREN JAUREGIA
LORATEGI BOTANIKOA ETA ERAKUSTARETOA





Abu

KUL
TUR
2021

27 or Ana Alcaine Luna Sefardita

LODOSA 20:00



BISITA GIDATUA KONTSERBA MUSEORA

San Adrián. 10:15 eta 12:15

Prezioa: 3 € / Gutxieneko parte-hartzaileak 12

IZEN-EMATEA:

lafabricavieja.com

T. 948 67 27 91 / 633 563 591



IBILI EBROREN ERTZEAN MAKAL ZAHARRAK EZAGUTZEKO

Lodosa, El ferial - Medianil. Egun osoa zehar. Doain

IZEN-EMATEA:

desarrollolocal@lodosa.es

T. 948 69 36 42

28 Lr No more blues

AZAGRA 21:00



BISITA MANZANOS UPATEGIRA

Manzanos Upategia. 11:00

Prezioa: 15 €

Gutxieneko parte-hartzaileak 10

IZEN-EMATEA:

bodegasmanzanos.com

visitas@manzanos.com

T. 948 692 500

Azken eguzkilorëa



BERTIZKO JAURERRIAREN JAUREGIA
LORATEGI BOTANIKOA ETA ERAKUSTARETOA



Irā

**KUL
TUR**
2021

2 og Tríkidantz

ZUBIRI (ESTERIBAR) 21:00

3 or Ache pa ti

AOIZ/AGOITZ 20:00

 BISITA GIDATUA EL IRATI S.A ERAKUSKETA GUNERA

17:00

Prezioa: 2 € / Gehienezko parte-hartzaileak 10

IZEN-EMATEA:

agoitz.eus / cultura@aoiz.es

T. 637 44 81 07

4 Lr Iruña Jazz Band

TUTERA 20:00

 BISITA GIDATUA TUTERA HIRIRA

11:30 eta 18:00

Prezioa: 3 €

IZEN-EMATEA:

torremonreal@tudela.es

T. 948 41 71 00

4 Lr La Niña Hilo

ARTAXOA 20:30

 BISITA DRAMATIZATUA ARTAXOAKO HARRESIETARA

Artaxoako harresiak. 18:00

Prezioa: 6,50 € / Gutxienezko parte-hartzaileak 10

IZEN-EMATEA:

info@rutasvivamus.com

T. 617 18 99 57



Ekaina

18 or Hogei Berriro

BERA

ALTZATEKO JAUNAREN PLAZA. 20:30



Txuma Flamarique nafar gitarrista ezagunaren proiektu berria da. **Maite Txurrukarekin**, **Ion Dorregarairekin** eta **Jon Uribeetxe berriarekin** batera **Hogei Berriro** taldea osatzen dute eta emanaldian Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Hertzainak, Ruper Ordorika, Xabier Lete... eta beste euskal artista klasiko batzuen lanak emanen dizkigute.

Hogei Berrirok musika kalitatez eta doinu ederrez beteriko oroitzapen horietara eramanez gaitu, eskubide osoz gure ondare musikalaren parte bilakatu diren horietara. Esperientzia luzea dute musikaren munduan, parte hartu baitute Enemigos Íntimos, Malú, Melendi, Nena Daconte, Los Condes edo No more Blues moduko taldeetan.



25 or

Mû Mbana

feat Javier Colina,
Juan Carlos Arâcil,
Jesús Mañeru.
Nô Tchon

TAFALLA

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA. 20:00
PREZIOA: 3 €

Nô Tchon soinu biluziaren muturretara egindako bidaia da, lur hezearen eta milurteko egurraren lurrina duenera; Ginea Bissauko folklorea abiapuntu hartzen duen zeremonia honetan oraino esploratu gabeko tokietara eramaten du.

Proiektu honen buru **Mû Mbana** dugu, Gineako multiinstrumentista eta poeta. Mû Mbana murgiltzen da Lurrari zaijon liturgia poetikoan, gure nagusiei zaien miresmenean, kolektibo moduan hobetzeko dugun erantzukizun eta konpromisoan, amodioa malgutasunetik eta errespetutik biziz, azken finean bizirik gaudela ospatzeko.

Abentura honetan dituen lagunak ezin egokiagoak dira. **Javier Colina**ren esperientziak eta handitasunak, **Juan Carlos Aracilen**

adierazkortasunak eta intentsitateak eta **Jesús Mañeruren** errespetu eta sormenak inprobisazioz, ñabardurez, konplizitatez eta konfiantzaz beteko sonoritatea erakusten digute. Ez dira elkarrekin hasi berriak. Izan ere, 10 urte daramate, lehenago *Nua Trio* proiektuan aritu baitziren, soinu-proiektu berri honetan hasi arte.

Diskoa zuzenean grabatu zuten *AC Recoletos Jazz-en*, *Madrilgo Jazz Jaialdiaren* barnean; *Youcali Music*-ek editatu du. Musika bizia da, mugarik gabea; erritmoa eta melodiak nahasten dira sentsazioz beteriko emanaldian eta horrek kontzertuak ezin utzizkoak bilakatzen ditu. Gizateriari emandako besarkada optimista, zentzumenendako plazer hutsa.



25 or

Iñaki Diéguez Hirukote Akustikoa

OLAZTI/OLAZAGUTÍA

SARASATE PLAZA. 20:00

Azken urteotan bidelagun izan ditudan musiketan egindako bidaia. Musika frantsesa, tangoa, folkaren inguruko musika, musika inprobisatua edo jazza. Kontzertu eklektiko bat, niri gustatzen zaidan musika.

Agertokietan daramatzadan urte hauetan guztietan musikari handiekin batera jo dut.

Orain modu intimoagoan jo nahi dut, musika-tresna xume eta aldi berean adierazpen-ahalmen handiko bat lagun dudala; nire konposizioak modu soilagoan, biluziagoan eman nahi ditut.

Kantu txiki nireak, musika-une gozo batez gozatzeko prestatuak... eta **Angel Unzu** (gitarra eta bouzouki-a) eta **Iker Telleria** (perkusionak) musikari eta lagun handiak alboan ditudala.



26 Lr

Las hijas de Bernarda

Arántxa Villanueva dantza konpainia

ESTELLA-LIZARRA

LOS LLANOSKO KULTURGUNEAREN LORATEGIAK. 21:30

Dantza Garaikidearen Konpainiak hamar urte baino gehiago darama sentsazioak, kezkak eta bitxikeriak adierazteko tresna bilakatzen, mugimendua. Zortzi dantzariz osatua eta **Arántxa Villanueva** koreografoak zuzendua, **Marta Juániz** aktoreak ere parte hartzen du gaurkotasun sozialeko gaien gaineko hausnarketak eginez.

Las hijas de Bernarda Federico García Lorcaren *La casa de Bernarda Alba* lanaren bertsioa da, dantzarako eta antzerkirako prestatua. Dolu latz erdiragarrien mende zeuden zenbait emakumek bizi zituzten egoera dramatikoetara hurbiltzen gaitu.

“Doluak irauten duen zortzi urtean ez da kanpoko haizerik sartuko etxe honetan...”

Inoiz baino gehiago entzuten ditugu behin eta beriz buruan Bernardaren hitzak, bakartzearen sentipenaz blai. Ulertzen dugu emakume haiek sentitu behar izan zuten mina, bizia leiho batetik pasatzen ikustean eta beren etsairik gaiztoenarekin giltzapetuta egotean. Hartara, ikusleari gogora ekarri nahi izan diote lehenago bizitzen ziren egoera lazgarriak gurean ditugula gaur egun ere.





2020ko urrian atera zen *Entre palmeras*, Juárezen laugarren lana. Taldea 2012an sortu zen eta Iruñeko undergroundeko erreferente nagusietako bat da.

Diskoa hauen laguntzarekin editatu zen: Cádizko Caballito Records, Sevillako Lunar Discos eta sotoko El Nébulas Recordings. *Entre palmeras*ko 12 gaiak 2020ko urtarrilean grabatu ziren Motu estudioetan,

Guillermo F. Mutiloaren zuzendaritzapean.

Albumak behin betiko sendotu du soinu berezkoa eta bereizgarria dakarren proiektu bat, hainbat generotako osagaiak hartzen dituena, hala nola mugako rocka, psikodelia, eta pop, folk, western eta indie musikak. Gaztelaniazko hitzek, Cristina eta Joseren ahotsetan, onirikoa, lirikotasuna eta pertsonala uztartzen dituzte.





Uztaila

2 or The Eclectic Celtic Band

MARTZILLA

GAZTELUKO PATIOA. 21:00



The **Eclectic Celtic Band** (ECB) Nafarroan finkatutako folk talde bat da. Taldearen lana oso eklektikoa da, nagusiki zelta-irlandarra. Pieza zaharrak, bertsiot modernoak eta berek egindako konposizioak jotzen dituzte.

Jotze paregabea, erabiltzen dituzten musika-tresnei eta sortzen duten soinuari esker. Hartara, bidaia noiznahi eta noranahira egin dezakezu haiekin.

Erabiltzen dituzten instrumentuen artean daude, besteak beste, flauta, *whistle*, biola, biolina, *bouzukia*, gitara, *bohdra*, salterioa, banjoa, biolontxelo, kontrabaxua, ahaztu gabe, ahotsak.

Errepertorioa zabala eta askotarikoa da. Soinua benetakoa eta hurbila da eta horri esker atmosfera bariatuak sortzen dira: erlaxatuak (baladak) edo alaiagoak diren gigak, reelak eta polkak.

Ibilbide luzea du taldeak, 2014tik hona elkarrekin jo baitute Donostiako Aste Nagusian, Iruñeko Zentral Kafean edo *Aitzina Folk* jaialdian lau musikari handi hauek: Fer, María, Javi eta Carlos.

Halaber, badituzte ardurako bi kolaboratzaile: Pablo eta Dani; haien kontzertuak, ikuskizunak eta *balfolk*ak edozein girotara egokitzen dakite.





KUL
TUR
Uzt

3 Lr

Demodé Producciones Incorřectas

PUENTE LA REINA/GARES

JULIÁN MENA PLAZA. 21:00

Kontzertu eszenikoa da, **Joli Pascualenak** gitarrarekin eta ahotsarekin, **Leire Celestinok** pianoarekin eta **Paula Azconak** txeloarekin eskaintzen dizkiguten bertsió originalez osatua.

Eszenaratzea eta testuak Patxi Barcok prestatu ditu, zuzendaritza musikalaren kargu Joli Pascualena egin da eta gitarra, txelo eta pianorako moldaketak Gorka Pastor konpositoreak egin ditu.

Hiru interprete horiek hiru instrumentu horien soinura hurreratzen dituzte musikaren historiara pasatu diren emakumezko kantari eta egile handi eta ezagunen lanak, hala nola Janis Joplin, Chavela Vargas, María Callas, Dolly Parton eta Nina Simonerenak.

Abestien artean, Jolik hurbiltzen gaitu artista handi horietako bakoitzaren errealitatera. Izan ere, artista handi horiek aurre egin

behar izan zioten dramari, justizia-ezari edo kantuan ikusi zituzten eta "deseroso" sentiarazi zituzten gizartearen gutxiespenari.

Hartara, ikuskizun honen egiturak aukera ematen du ezagutzeko nola jokatu zuen Edith Piäfek naziek Paris okupatu zutenean edo nola egin zien aurre Dusty Springfieldek *apartheidari* edo Hegoafrikako erregimen arrazistaren debekuei. Ezagunak bazaizkigu ere, ikuspegi sakon batetik entzunen ditugu horrela.

Bata bestearen atzetik agertuko zaizkigu ikuskizunean... suminduta, engaiatuta, militante edo manugaitz. Esan behar da kasu batzuetan larrutik ordaindu behar izan zituztela jarrera horiek. Maiz uste dugu bestelakoak izan zirela interprete horiek, haien irudi desitxuratua, edulkoratua edo faltsua erakutsi izan baitigute.

KIDEAK

Joli Pascualena: gitarra eta ahotsa / **Leire Celestino:** pianoa / **Paula Azcona:** txelo





3 Lr

Carlos Arriezu Baztan

FITERO

FITEROKO MONASTERIOKO KLAUSTROA. 21:00

Carlos Arriezu, pianista eta konpositorea, jaioterriaren (San Adrián) eta Madrilen artean bizi da. *Pablo Sarasate Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorio*ko Musikako lizentziaduna da, Piano-jazzaren espezialitatean. Musikari geldigorra, prestakuntza Kuban eta Ingalaterran, besteak beste, osatu duena. *Smooth Jazz* Caraband bandaren eratzaille eta alma materra, Espainiako eta nazioarteko jazz-agertoki nagusienetan jo izan du. Halaber, udaberri honetan *A Dream of Jazz* izeneko laugarren albuma atera du. Konpositore moduan musika instrumental garaikideko askotariko estiloak bereganatu ditu eta halaxe ageri da bere lanetan: **Carlos Arriezu**, 4 Estaciones, Cervantes a lo largo del Tiempo eta Baztan (hauxe aurkeztu du honako honetan).

Baztan egilearen amaren omenez egindako lana da. Izan ere, hogeita bost urtez egon zen ama Baztanen bizitzen. Karga emozional handiko lana da eta, hartara, menderen mendeko elezahar eta alegiak transmititu nahi izan ditu, entzuleen belarrietara xuxurlatuko balira bezala. Kontzertu honetan **Carlos Arriezu** Pirinioetako kulturaren barna bidaia egiteko proposamena egin digu, bere-berea den ikuspuntu batetik abiatuz. Ibilbide honetan hamasei konposizio joko dira, Baztango eta baztandarren ezaugarriak bere egiten dituzten lau elementu hauen inguruan: natura, mitologia, arbasoak eta tradizioak. Doinu intimoak, entzuleak leku magiko eta atemporal batera eramaten dituzten irudi eder batzuek lagunduta eta emoziorik sakonenekin bat egitera gonbit eginez.





Piazzolla *El día que me quieras* (1935) filmean, Carlos Gardelekin batera

8 og

Astor Piazzolla

Omenaldia

VALTIERRA

ITXAROPENAREN PARKEA. 20:00

Astor Piazzollaren musika. Ikuskizuna, kontzertu desberdina giro desberdin batean, ikusle guztiendako.

"Tangoaren etsaia... Bai, hala da, tangoaren etsaia naiz, haiek tangotzat ulertzen dutenarena. Haiek "compadrito"an sinesten segitzen dute. Nik, ez. "Farolito"an sinesten dute. Nik, ez. Dena aldatu bada, Buenos Airesko musikak ere aldatu behar du. Asko gara tangoa aldatu nahi dugunak, baina erasotzen nauten jaun hauek ez dute ulertzen eta ezta sekula ulertuko ere. Aitzina segituko dut, haien gogoz bestera" (Ástor Piazzola, 1954).

KIDEAK

Carmen Larraz: dantza / **Anna Radomska:** biolina / **David Johnstone:** biolontxelo / **Xabier Olazabal:** akordeoia / **Aktorea**

Gurasoek ez zioten utzi Carlos Gardelekin biran bandoneona jotzera joatera. Hori dela eta ez zen Gardel hil zen istripuan hil. Hala esan zion Gardel: «Handia izanen duk, mutil, hala esaten diat nik. Egin ezak kontu: tangoa espainiar batek bezala jotzen duk». Ástorrek hamalau urte zituen orduan: "Nire bizitzako lehen tangoa eta Gardel alboan izanen! Ez dut sekula ere ahaztuko".

Aspaldiko tango-dantzari eta -kantariekin izandako eztabaidaz, Lalo Schiffrinek hala esan zuen: "Elkarrekin bazkaltzen ari ginela, Astorrek esan zidan triste eta atsekabetua zegoela meritua onartzen ez zioten tango-dantzari eta -kantariekin eta gai horrekin zebilen, etengabe. Ástor: ez egin kasurik esaten dizutenari. Zuk egiten duzuna tangoa dela edo ez dela, ez da zure arazoa. Zu Piazzolla egiten ari zara".





Trío Sensory taldea osatzen dute **Aurora Vivesek** eta **Begoña Martínezek** (Iruñeko *Pablo Sarasate* Kontserbatorio Profesionaleko saxofoi eta klarinete irakasleak), eta **Marina Sierrak** (Tuterako *Fernando Remacha* Eskola Kontserbatorioko irakaslea eta errepertorista). Lagunak izateak eta musikagatiko zaletasunak talde hau sortzera bultzatu ditu. Proiektu honen helburu nagusia da entzuleak Latinoamerikako errepertoriara hurbiltzea, interpretazioan originaltasuna eta sentiberatasuna bilatuz, besteak beste, Paquito d' Rivera, Astor Piazzolla eta Héctor Villalobos moduko konpositoreen lanekin. Ausartak dira harmoniak, eritmoak, tempoak eta kontrapuntuak. Halaxekoa da haien musika.

Astor Piazzollaren lanetatik joko dugu, lehenik, *Historia del Tango*, flauta eta gitararako pieza originala, argentinarraren konpositorearen lanik ezagunenetako bat. Astorrek, bere karrera luze eta arrakastatsuan, tangoa atera zuen

Argentinako putetxe eta dantzatokietatik eta Ameriketako eta Europako kontzertu-aretoetara eramane zuten. Eta, bigarrenik, *Oblivion*, musika malenkoniatsua, oroiminak joa, zeinetan baxuak haren tango-eritmoa punteatzen baitu, bihotzak taupadak joko balitu bezala.

Héctor Villalobos XX. mendeko musikaren maisu handietako bat da. Konpositore garrantzitsua dela agerian gelditzen da musika klasikoa eta Brasilgo musika folklorikoa batzen dituenean. Haren *Fantasie* lana entzunen da.

Paquito d' Riverak ezin du ukitzen duen oro kubatar bihurtu, urrun badago ere maite baitu maite sorterrria. *Jazzaren* zein musika klasikoaren zale amorratua izanik, bere lanaren helburu nagusietako bat da jazz musika klasikoan txertatzea. Haren piezetatik *Vals Venezolano* eta *Conradanza* joko ditugu.



10 Lr

Broken Brothers Brâss Band

SALINAS DE ORO/JAITZ

PILOTALEKU ESTALIA. 20:00

Iruñean sortua 2006. urtean, **Broken** taldeak New Orleanseko atzoko eta gaurko kaleko taldeen soinua dakargu: (*Hot 8 Brass Band, TBC Brass Band, Stooges Brass Band, Rebirth...*)

Kalean bost disko dituzte (*The Live We Deserve Errabal-Jazz, 2012. In The Mud Errabal-Jazz, 2014. Ildoa Landuz Errabal-Jazz, 2016. Txertaketa Errabal-Jazz, 2018), Katebegia (2021)* eta kolaborazioak egin dituzte zuzenean eta estudioan (Berri Txarrak, Cabezafuego, Fermin Muguruza, Amparanoia, Javi Pez - Triz3ps, De2enBluesBand, Sustraian Records...).

Hamabost urte honetan zernahi kale, areto eta jaialditan jo dute.

Gumboaren gure errezeta paregabean aurkituko dituzue *jazz* garaikidea (Robert Glasper, Kamasi Washington...), dantzarako *groove* sendoak, talde-kantuak, gure kaleetako bizia islatzen dutenak, rapa, inprobisazio kolektiboa...

News Orleanseko *second line*-a bizitzeko aukera paregabea. Entzuleak ez dira entzule huts, ekintzaren ezinbesteko parte baizik. Brass Band tradizioaren askotariko ildoetako musika originala eta klasikoak entzunen dituzue (*jazz* tradizionala, *gospel* himnoak, *rhythm and bluesa*, *2nd line funka*, *indiansa...*).





Superacid talde ausart eta dinamikoa bat da. 2017an sortua, energia eta positibismoz betetako eszenaratzea egiten dute, adin guztietako jendeak musikarekin goza eta dantza dezan. Taldeko kideak ez dira hasi berriak agertoki gainean.

Boskoteak *beat* musikaren sendotasunaren eta zentzu sakonaren alde egiten du eta hartan oinarritzen du bere lana taldeak.

Diego, Pablo, Xabier, Héctor eta Enekoren zuzeneko zorrotzak soinu azido berezia du,

funkean eta diskoan oinarritua. Nahasi eta fusionatzen ditu ska, rock, *Balkan* eta *Reggae* arrastoak, taldekideen eraginak eta musikarekiko pasio zintzoak eraginda.

Estella-Lizarrako La Trova aretoan debuta eggin ondoren, zernahi kontzertu eman ditu Nafarroan zein kanpoan. *Akelarre Kultur Elkarte*a eta Arrosadia/Azpilagañako musika-lehiaketak irabazi zituzten, azken fasera iritsi ziren *Euskadi Gaztea EITB* lehiaketako eta *Moncayo Festeko* lehiaketetan.



16 or
Basabi
Kronos

OCHAGAVÍA/OTSAGABIA
BLANKOA PLAZA. 22:00



Basabi sortu da musika klasikoa jendarteratzeko eta txalaparta ohiko tokietatik kanpo ere hedatzeko. Txalapartaren soinuak haizezko instrumentuen sonoritatea eraldatzen du eta diziplina biziago eta organikoagoa bilakatzen du.

Hala, sortzen dituen ikuskizunek komunean dute irisgarritasuna eta esperimenzazioa.

Hartara, taldeak hizkuntza propioa sortu du, taldekideen ideiei erantzuteko: mugetatik eta etiketatik ihes egitea.

Kronos-en harrizko txalaparta gailentzen da eta haren soinu-baliabide guztiak hedatzen ditu inspirazio zinematografikoko konposizio minimalisten bitartez. Soinu horien bitartez introspektiorako bidea irekitzen da aldaketa teknologikoak eta komunikazio-modu berriak nagusi diren gizarte batean.



17 Lr

Alberto Rodríguez Purroy & Banda Instantánea

VIANA

DONE PETRI ELIZAREN AURRIAK. 20:00

Alberto Rodríguez Purroy musikari eta kantautore iruindarrak, Instantánea diskoaren akustikoen periploaren ondoren (Fredí Peláezen musika-ekoizpena, Pottoko Studio, pressed by Sarbide Music, 2018ko urria), proposamen honekin proiektua sendotu du. Izan ere, egile-kantuararen estiloari originaltasuna eman dio taldeak zuzenean ematen dituen soinu akustiko eta elektrikoen moldaketei eta enpasteari esker. Uneko hamabi "argazki", poesiaz, ironiaz eta mezuz beteak, ematen duen ahots batez lagunduta eta askotariko erregistroen lagun: popa, el *Rhythm&bluesa* edo *Bluegrassa*.

Albumak jendearen, hedabideen eta sare sozialen harrera eta feedback onak izan ditu. Javier Escorзок aipatua "Sonidos 2018" laburpenean. Jo du Burlatako Auditoriumean, Madrilgo Libertad

8-n, ENT-n edo Indaran eta atzeratu behar izan ditu Donostiako Altxerrin edo Bilboko ZAWP-en ematekoak zituenak, COVID-19a dela eta.

2015ean, Luis Eduardo Autek Benalmádenan eman zuen kontzertuko hasierako gonbidatua izan zen eta urte horretan berean grabatu zuen *Barco, arena y playa* singlea, Txema Garcésen moldaketekin. 2010ean, *Ojos de caramelo* bideoklipa konposatu zuen. 2017an, Leonard Cohenen omenezko errezitala aurkeztu zuen eta Civivoxen eman zuen ikuskizunean Sergio Peris-Menchetarekin eta Marta Solazekin batera aritu zen Mario Benedettiren *No te salves* poema musikalizatuarekin. 1997an, Nafarroako Gobernuako kantautoreen lehiaketan 2. saria erdietsi zuen eta finalean hartu zuen parte, Gaiarre antzokian.

KIDEAK

Alberto Rodríguez Purroy: gitarra, akustika eta ahotsa / **Fredí Peláez:** teklatuak eta koraak / **Kike Arza:** baxu elektrikoa / **Juanma Urriza:** bateria / **Alejandro Mingot:** gitarra elektrikoa



Flaming Shakers

ALTSASU/ALSASUA

IORTIAKO ZABALGUNEA. 20:00



Kritika espezializatuaren arabera, **The Flaming Shakers** da The Beatles taldeari omen egiten dion bandarik hoberena. 2015ean Liverpoolen egin zen International Beatle Week-en ustekabean ateratako banda izendatu zituzten aparteko musikari hauek eta berriro hautatu zituzten 2017ko edizioan. Banda honen funtsezko argudioa denboran zehar egindako bidaia da. Izan ere, The Beatles taldearen musika eta irudi zoragarri hura berriro ekartzen digute gurera, aldaketa eta esperimentazio gose zen gizarte hartan hala eragin zuen huraxe. *Fab Four*en karrerako alderdirik aipagarrienak berrikusiz, haien ekitaldietan erabilitako jantziak eta musikatresnak ere islatzen dituzte.

Taldearen garaikideek garai haiek eta Liverpooloko laukotearen ibilbidea gogoratzeko aukera izanen dute, eta belaunaldi berriek nor ziren jakinen dute modu oso profesional, errespetuzko eta gomendagarrian. Nazioartean omen-banda bakarra da The Quarrymen-ekin (The Quarrymen banda John Lennonek sortu eta bideratu zuen, oraino nerabe zela, eta hartara bildu ziren gero The Beatles taldeko etorkizuneko bi kide: Paul McCartney eta George Harrison) eta Pete Bestekin batera jo duena (The Beatles taldearen bateria-jotzailea izan zen 1960tik 1962ra arte Pete). Halaber, Europa osoan jo du Beatle *unibertso*an egin diren programaziorik entzutetsuenetan.



24 Lr

Zorongo

Experiencia Xacobeo

ORREAGA/RONCESVALLES

KOLEGIATA. 19:00

Experiencia Xacobeo **Zorongok** Xacobeo 2021-22rako egin duen proposamen berria da, Erdi Aroko musika kontzertu oroitarazle eta garaikidea aldi berean eta, orobat, Donejakue bidearen musikan oinarritua.

Kontzertu honekin musika-gune berri bat bilatzen du, Erdi Aroko mundua eta beste estetika modernoago batzuk batzeko xedez. 20 urte baino gehiagoko ibilbidean zehar, **Zorongok** Erdi Aroko eta Donejakue bideko gaietan oinarritutako zernahi kontzertu eman ditu (*Ultreia! Más*

allá de El Camino, Experiencia. Espacios para ser sonados, etab.) eta, orobat, lan hori guztia disko eta dokumental batean erakutsi du.

Erdi Aroko musikaren gainean **Zorongok** egiten duen proposamen berrizat har daiteke kontzertu hau. **Zorongo** musika-talde nafarrak 22 urte honetan ari da lanean, etengabe, eta flamenkoa eta jazza uztartzen dituen talde modura ezaguna bada ere, Erdi Aroko eta hiru kulturatako musikaren inguruko proiektuak ere egin ditu.

KIDEAK

María Echeverría: ahotsa / **Ekhi Ocaña:** flauta eta organoa / **Urko Ocaña:** laud arabiarra eta panderoa / **Edurne Aizpún:** harpa / **José Luis Gómez Koki:** saxoak eta panderoa



30 or Juan Mari Beltrán Kostaldeko Soinuak

ZUGARRAMURDI

SORGINEN LEIZEA. 17:00

LEIZEAN SARTZEKO PREZIOA: 4,50 €



Kostaldeko Soinuak lanarekin euskal kostaldean barna joan nahi dugu, itsasoko, itsasontzietako, marinelen, arrantzaleen eta arraunlarien istorioak kontatzen dizkiguten kantu eta doinuen lagun.

Guztira 16 pieza dira, Lapurdiko, Gipuzkoako eta Bizkaiko herri-kantutegitik hartutakoak.

Horietako batzuk dantza-zatiak dira, letrarik gabeak. Hauexek: Pasaiaiko *Batelarien Zortzikoa*, Lapurdiko *Kaskarote dantza*, eta Lekeitioko *Mariñelen Polka* eta *Kaixarranka*.

Gainerako kantuen gaiak askotarikoak dira: itsasontzietan izandako gosea, ekaitzak, tragediak, baleen arrantza, marinelen herrietako gertaerak, Kristobal Kolonen bizia, emigrazioa, Ternuara zihoazen marinelen beldurrak...

Piezarik gehienak hartu ditugu *Cancionero Popular Vasco* argitalpenetik (R. M. Azkuek argitaratu zuen XX. mendearen hasieran) eta Aita Donostiaren *Cancionero Vasco* lanetik. Nolanahi ere, batzuk berriagoak dira, hala nola Pasaiaiko *Batelarien zortzikoa* (Pablo Sorazabalek moldatua), Oskorriren *Dabil beharrean* eta, XVIII. mendeko *Partida tristea Ternuara* izeneko bertso batzuetan oinarrituz, guk geuk sortu dugun doinua.

Errezital honetan ahotsekin batera euskal herri-musikan erabilitako musika-tresnak joko dira, gaur egun erabiltzen direnetako batzuk eta lehenago maizago erabiltzen ziren beste batzuk, hala nola akordeoia, txistua, danbolina, klarinetea, dultzaina, txalaparta, xiolarrua, arrabita, zarrabetea, panderoa eta danborrak.

KIDEAK

Juan Mari Beltran: txistua, flauta, xiolarrua, zarrabetea, txalaparta, alboka, dultzaina, klarinetea eta koruak / **Ander Barrenetxea Lasarte:** ahotsa, danborra, panderoak, txalaparta, atabala, bonboa eta danbolina / **Aitor Gabilondo:** ahotsa / **Errege Belda:** akordeoia eta koruak



31 Lr

Anne Etchegoyen

Emazte

ELIZONDO (BAZTAN)

BRAULIO IRIARTE PILOTALEKUA. 20:00

Emazte albumean, **Anne Etchegoyenek** gogora ekarri nahi izan du emakumea eta horretarako, euskal kantaria baita, hain maite dituen gaurkotasuneko gaiak lantzen ditu, ñabardura maskulinoz jositako kantu batean bere ukituak emanez.

Anne Etchegoyen kantuan hasi zen Donapaleuko haurren abesbatza batean, zortzi urte besterik ez zituela. 16 urterekin, Baionako kontserbatorioan sartu zen eta bi urte geroago Bordelekoan; hantxe ikasi zituen kantu klasikoaren oinarriak. Emakumezkoen euskal kantuko erreferentetzat hartzen da gaur egun eta haren ahotsa atipikoa eta fina da, gozoa eta aratza, baina indartsua batzuetan.

Euskal kantua munduan gizonak dira nagusi. Hala ere, **Anne Etchegoyenek** jakin izan du karrera profesionalen daraman hamahiru urte baino gehiagotan unibertso musikal propioa ezartzen eta, orobat, lagundu du euskal musika eskuragarriagoa izaten, gero eta askotarikoagoa den entzuleria bereganatuz, diskoen bidez edo elizetan edo agertokietan emandako kontzertuen bidez. Euskal Herrian baitezpadako artista bilakatu da eta emakumezko euskal artista bakarra da gure mugetatik kanpo bere kultura hedatzeko gai izan dena.

Agertoki bat baino gehiagotan aritu izan da: Olympian, Alhalbran, Parisko Casino-n,

Korsikan, Britainian, Vendéen emandako kontzertuetan, eliza eta kaperetan, Biarritzen, Bordelen, Périgueuxen, Angelun, Cap Ferreten, Montpellierren, Argentinan eta Ameriketako Estatu Batuetan egindako biretan, batez ere hango euskaldun komunitateekin elkartzeko.

Arrakastatsua izan da oso *Les Voix Basques* proiektua, Smart/Sonyk 2013an egina.

80.000 kopia baino gehiago saldu ditu eta bi milioi lagunek baino gehiagok ikusi dute bideoklipa. Hartara, kontzertu asko eman zituen, gehien-gehienak gaineraino beteak: Donostiako Kursaal-en eta Victoria Eugenia antzokian, Bilboko Guggenheimeko aitzinaldean, BBK aretoan eta Arriaga antzokian.



31 Lr
Andueza-Jaso-Esquivel
Trio

IRACHETA (LEOZ)

PILOTALEKUA. 19:00



Musikan soinu eta bide berriak aurkitzeko beharragatik eta jakin-minagatik sortu zen hirukote hau. Hiru musikari, askotariko eta elkarren kontrako ibilbideak izanik ere jazzak eta berrikuntzak batzen dituenak, tradizio musikala eta jazzekoa inoiz ere alde batera utzi gabe. **Mikel Andueza**, herrialdeko *Jazzman* handietako bat, **Javier López Jaso**, jazzean izan dituen lorpenengatik ezaguna den musikari eta akordeoi-jotzaile ezaguna, eta **Marcelo Esquivel** kontrabaxu-jotzaile ezagun eta ospetsua.

Giro iradokitzaileak, ñabardurez beteak. Doinu eta erritmo tradizionalak: Brasilgoak, folklorikoak... Introspektzioa eta tradizioa oinarri harmonikoetan, erritmika iradokitzaile eta limurtzailea. Horrek guztiak sonoritate eta giro desberdinak sortzen ditu.

Atsedan edo arnas hartzeko astirik gabeko emanaldia, kalitatezko erreperitorio eder eta poetikoa, modu berri eta ezohikoan emana.



Abuztua

5^og La orquestina de la abuela Pina

ISABA/IZABA
ANFITEATROA. 20:30



Betiko musika sonoritate berriekin. Jazban tipikoa, aurreko mendearen hasierakoa, klarineteaz, saxofoiaz, tubaz, bateriaz eta dultzainaz osatua, azken hau penintsula barneko lurretan ohikoa dena.

Partitura zaharrak berreskuratu dira, haietako anitz gure herrietako festak eta gure plazetako dantzaldiak alaitzen zituzten musika banda haiek erabiliak.

La orquestina de la abuela Pinan, dultzainaren soinua modako beste erritmo batzuekin nahastena da, hala nola boleroekin, mazurkekin, balsekin, korridoekin, habanerekin, pasodobleekin...

Zaharraren eta berriaren arteko fusioa, estilo oso berezi batekin.

Errepertorio egoki eta dibertigarria prestatu dugu, formazio horiek kale-plazetan jotzen zutenean egiten zuten soinua berreskuratu nahian.

KIDEAK

Luis Ramos: perkusioa / **Rubén Valentín:** tuba / **Alfredo Ramos:** dultzaina / **Ricardo Ramos:** klarinetea eta saxofoia





6 or Tenpora Berriro asma nazazu

LESAKA

PLAZA ZAHARRA. 20:00

Tenpora Tolosaldean sortutako talde bat da. Ibilbide zabaleko bost musikaririk osatua, proiektu hau 2012an abiatu zen eta bi disko luze argitaratu dituzte (*Mundu berria*, 2014an eta *Itzulika*, 2017an).


Taldearen konposizioa eklektikoa da eta musika aldetik aberatsa. Ez zen besterik espero ikusita taldekideak askotariko proiektu eta taldeetako parte direla.

Estilo eta sentiberatasun horiek taldeari nortasun propio eta berezia eman diote, arrastoa uzten duen nortasuna. Taldearen musika sailkaezina da, taldea etengabeko bilaketan murgilduta baitago.

Hala ere, beren soinuaren esentziari eta nortasunari eusten diote. Aldiz, musika-adituek diote kantuek popetik eta jazzetik edaten dutela eta musika elektronikoan eta rock progresiboan barnertzen direla. Proposamenaren kalitatea, zuzeneko indarra eta kantuetan agerikoa den egonkortasuna, batetik, eta taldearen sendotasun eta edertasuna, bestetik, dira entzuleek zein kritikak adierazi dituzten kualitatetarik behinenak.

Aitor Etxeberrria ekoizle dutela, hirugarren diskoa aurkeztu dute: *Berriro asma nazazu*. Talde gisa jadanik zuten ibilbide sendoa berrestera datorren lan paregabea.





Música en cada Rincón 2020an sortu zen, musikaren eta ikus-entzunezkoaren kultura tokirik galdu eta ezkutuenetara eramateko xedez. 2021eko edizioan, *Música en cada rincón* biran 15 kontzertu emanen dira Espainiako autonomia erkidego bakoitzeko udalerririk txikienetan.

Bira horri begira aukeratu eta egokitu den ikuskizuna *Luces, Música, ¡Acción!* da, herritar guztiendako bereziki prestatu den ikuskizun aski hurbila. Jatorrizko soinu-banden musikan oinarrituta dago eta kalitate tekniko eta musikal handia du; izan ere, herrialdeko musikari garrantzitsuenetako batzuekin egiten dute lan.

KIDEAK

Claudia Osés: Biolina eta mandolina / **Liesbeth Baelus:** Biolina / **Iván Carmona:** Biolontxelo, Txirulak eta Duduk / **Alejandro Martínez:** Biolontxelo / **Igor Arostegui:** Perkusioa / **Daniel Domínguez:** Perkusioa eta Batería

Ikuskizunaren zuzendaritza eta sorkuntza: **Iván Carmona** eta **Claudia Osés**, Suakai



7^{Ur}

The Ribbons

LOS ARCOS

COSO PLAZA. 21:00

Ibaizabal ibaiaren eskuinaldean bizi izan zen **Beatriz Catalán** iruindarra, bokaziozko aktore eta inoiz aktore bokalista. **Iñigo Hernández de Miguel** bilbotar gitarra-jotzailearekin batera sortu zuen 2015ean *Rock con Mayúsculas* banda, taldearen horizonte musikala mugatzen duten deitura eta etiketa estilistikorik gabe.

Klasikoen (batez ere, 70eko hamarkadaren erdialdeko eta amaierako New Yorkeko punk-rockaren) eragina begien bistakoa bada ere, ez dituzte joera abangoardistak baztertzen, betiere beren oinarrizko kontzeptuarekin bat badatoz: gitarra zorrotzen eta oinarri erritmiko boteretsuen rock delakoa. Bokalistaren interpretazioa, aldz, melodikoa da, Patty Smith edo Debora Harry moduko artista handien ildotik.

Gai dira beren soinu-paisaiak sortzeko eta edozein melodia edo eritmo beren aldera eramateko. Horri guztiari testu batzuk gehitzen

badizkiozu (ingelesez eta gaztelaniaz), non Beatriz emakumeak munduari eta bizitzari buruz, maitasunari eta gorrotoari buruz, poztasunari eta beldurrari buruz duen ikuspegiak autokritika pertsonala eta indibiduala aldarrikatzen duen, iraultza kolektiboaren hasiera gisa, orduan zure eskuetan izanen duzu **The Ribbons**en esentzia.

2020ko azaroan argitaratu dute azken lana, F.F.W.D. albuma (*Fast Forward*), Martín Guevarak (*Cápsula*) Silver Recordings-eko estudioetan ekoiztia. Lehenago argitaratu zituzten lehen LPa (*Kinki Girl*, 2017) eta single birtual bat (*Giraffe women/Get you out of my head*, 2018). Horietatik atera zuten Luis Vil zuzendariak filmatutako *Giraffe Women*, (2019) bideoklipa. 2021eko otsailean azken lana (*Cobardía bideoklipa*) estreinatu dute, Ander Manero bilbotar zuzendariaren aginduetara, F.F.W.D. albumean sartutako titulu bereko abestitik aterata.

KIDEAK

Beatriz Catalán: bokalista / **MJ Gosende:** baxua / **Ramón M. Zubiaurre:** bateria / **Joss Aranburu:** gitarra eta koruak / **Iñigo Hernández:** gitarra eta koruak



Joaquín Taboada 3 en diálogos

RONCAL/ERRONKARI

KIROLDEGIA. 19:00



3 en diálogos lanarekin 80ko eta 90eko hamarkadetan gure bizitzetan sartu ziren musika berri guztiei omenaldia egin nahi diegu. Musika berri horiek irrati programetan entzun ziren, besteak beste, Radio 3-eko *Diálogos* ahaztezinean edo M80ko *Música Privada* irratsaioan eta **Taboada** berarenean, esaterako. Musika hori erabakigarria izan zen entzule eta konpositore belaunaldi oso batentzat. Horiek alternatiba bat, estiloen arteko fusio bat eta musika-planteamenduen ikuspegi estetiko berri bat ikusi zuten.

3 en diálogos birsorkuntza bat da, ez imitazio

bat. Gai bakoitza berariaz moldatu da biolina, biolontxelo eta pianoa (gai batzuetan, akordeoia) hirukote horretarako; izan ere, ezinezkoa izanen litzateke jatorrizko gai guztiak sortuta zeuden bezala egitea, formazio eta estilo ugari daudelako, *New Age* puruenetik hasi eta musika elektronikora arte.

Joaquín Taboadak proposatu duen *hirukote klasikoaren* formazioari esker, formatuen aldakortasun handia da, *a capella* kontzertu ezin hobea egitetik hasita, areto edo espazio txiki batean, espazio handietan anplifikatutako kontzertuak egitera arte.

KIDEAK

Joaquín Taboada: pianoa, akordeoia, jatorrizkoaren moldaketak / **Paula Azcona:** biolontxelo / **Daniel Sádaba:** biolina



13 or Mielotxin Órdago

RIBAFORADA

ZALDUN TENPLARIOEN KALEA (TROKA). 22:00

Musikaren, dantza tradizionalaren eta antzerkiaren diziplinarteko ikuskizun bat da, fikziozko historia batean oinarritua. Bertan, jota kantatuari *Órdagoa* jotzen zaio, jota dantzatuaren aurrean gaudela, Iparraldeko Nafarroari Hegoaldekoa aurrean dela, mendiaren espiritu erasotzaileari lautadaren spiritu delikatu aurrean dela... Ardoa, mahastia, Mediterraneoko paisaia, landa-bizitza... identifikatzen gaituzten elementuak eskaintzen ditu.

Órdago ikuskizun honen protagonista jota da, **Noelia Compais** da eta ibilbide luzeko jotaria da, Tafallako (Nafarroa) Flamarique ahizpen jota eskolatik ateratakoa. Bera da jota, eta Mediterraneoko kultura eta ardoa ordezkatzen ditu.

Aurrean dantzariak daude, Atarrabiako *Mikelats dantza taldekoak*, mendia, espiritu basatia, dantza eta ibarra irudikatzen dituztenak.

Mielotxin 2003an sortu zen, Nafarroako herri-musika iparraldetik hegoaldera eguneratzeko eta berpizteko helburuarekin, abesti kantatuekin gaztelaniaz zein euskaraz, beste abesti instrumentalekin, dantzakoeekin, herrikoiekin edo egile-kantuekin, gure kultura aberastasuna eta barietatea islatzen dutenak proposamen moderno batetik abiatuta, egungo *worldmusic*-aren ildotik.

Musikarien birtuosismoa eta instrumentuen tinbre-aniztasuna (txistua, txirula, alboka edo akordeoia) kontrabaxuarekin, pianoarekin eta munduko perkusio-sorta batekin fusionatzen dira, indar, freskotasun eta kalitate handiko zuzeneko batean.

Urte hauetan zehar, bere musika agertoki handietara eraman du eta hainbat herrialde bisitatu ditu, hala nola Frantzia, Suedia, Portugal, Hungaria, Bulgaria... Ondoko sari hauek jaso ditu: *Nafarroako Artista Gazteen Musika Berriak* 2004, *Illorako (Granada) II. Eurofolk* 2004, *Kantabriako Prau agertokiaren III. saria* 2006 eta *Ermuko (Bizkaia) I. Folkez Blai* 2007.



Diego Arbizu eta Pascual Jover

LEIREKO MONASTERIOA

ELIZA. 19:45



Leipzig-Mosku. Europako erromantizismo musikalaren hasiera eta bukaera Obrak: Mendelsohn-etik Rachmaninoff-era.

Diego Arbizu. Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioko eta Rotterdameko Hogeschool voor Muziek-eko Biolontxeloko eta Ganbera Musikako Goi Mailako tituluduna.

Suggia Piano Trioko eta Europako hainbat orkestra sinfonikoko kidea da, eta kontzertuak eskaini ditu Portugalen, Espainian, Frantzian, Belgikan, Holandan, Erresuma Batuan, Suitzan, Alemanian, Estatu Batuetan eta Kanadan.

Esparru pedagogikoan, maiz ematen ditu Estatuko Masterclasse-ak eta biolontxelolikastaroak. Gaur egun, *Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko* biolontxeloko irakaslea da, eta *European String Teaching Association* elkarteko kidea

Pascual Jover. Iruindar pianista. Iruñeko *P. Sarasate Kontserbatorio Profesional*ean eta Madrilgo *Goi Mailako Musika Errege Kontserbatorioan* ikasi zuen; Imre Rohmann hungariar pianistarekin osatu zuen bere prestakuntza. Hainbat orkestrarekin elkarlanean aritu da eta hainbat sari lortu ditu lehiaketa nazionaletan. Bi disko grabatu ditu: *Sonatas mediterráneas para viola y piano* eta bi pianotarako obrak, Bartókenak eta Stravinskyrenak. Kontzertuak eskaini ditu Espainiako hiri askotan, bakarlari gisa eta ganbera-taldeetan. Valentziako *J. Iturbi Udal Kontserbatorioko* irakasle izan da, eta 2010. urtetik eskola ematen du Iruñeko *P. Sarasate Kontserbatorio Profesional*ean.



14 Lr

Hagoan

LEKUNBERRI

HERRIKO PLAZA. 20:00

Hagoan rock musika-talde bat da, Iruñeko sei gazte hauek osatua: Aritz Ezker Galech, Oier Alsúa, Asier Pérez Gil, Efrén Otazu De la Casa, Iker Tollar Ugarte eta Oier Balda Vidaurre.

2020an, lehen singlea kaleratu zuten (*Bizitzeko beldurra*) bideoklip formatuan; YouTubean dago eskuragarri. Hilabete batzuk geroago, lehen diskoa plazaratu zuten (*Bazen behin*), honako hau ere plataforma digitaletan eskura daitekeena (#Hagoan Taldea).

2021eko otsailean eta martxoan, *Sold Out* agertu zuten Zizurko eta Burlatako kultur etxeetan.

Gaiak berek egindakoak dira eta, horietaz gainera, Berri Txarrak edo Platero y Tú taldeen eragina nabari da beste batzuetan.



19 og Travellin' Brothers 1001 Nights

CORELLA

MARÍA TERESA PARKEA. 22:00

Poker-partida bat balitz bezala, azken jokaldia, eskuetako onena eta dena mahai ganean eginez, **Travellin' Brothers**-ek disko horri aurre egiteko modua da.

Apustu ausarta, baina segurtasunean oinarritua, ibilbide bikain baten esperientziak ematen duena: 15 urteko historia, 8 disko grabatu, 1.000 kontzertu bizkarrean, nazioko, Europako eta AEBetako birak, lankidetzaz lehen mailako artistekin, nazioarteko jaialdi onenetan parte hartzea, ikusleen eta kritikoen sariak eta aintzatespenak, eta bizipen ugari denbora horretan guztian.

1001 Nights 2018ko abenduaren 30ean zuzenean grabatutako disko bat da, toma bakar batean, tranparik eta kartoirik gabe, *recordingsik* gabe,

ahalik eta agertokirik onenean, Bilboko Arriaga antzokian, *sold out* antologiko batekin eta talde hori inor ez den bezala mugitzen den tokian.

Honako hauek osatzen dute: taldearen karrera markatu duten abesti mordoak, azken disko txalotuaren abestietan oinarritutako errepertorio bat, batetik, eta bandaren kantu historikoak, bestetik, moldaketa eta berrikuspen berriekin, eta, azkenik, horretarako prestatutako kantu argitaragabe batzuk.

Eta dena borobiltzeko, taldeko laguna izateaz gainera nazioarteko kategorian handiko musikaria den Earl Thomas handiarekin. Azken horren errepertorioko abestiak interpretatzen ausartu ziren harekin, taldearen beraren ukituarekin, **Travellin' Brothers** estiloarekin, jakina.



JAC (Jaime Alvarellos Correcher) gitarrista eta blues kantaria da. Gaur egun, *Raw* disko berriaren aurkezpen-bira egiten ari da.

Kasu honetan, XX. mende hasierako *Piedmont*, *RagTime* eta *landa-Blues* estiloetan oinarritzen da ikuskizuna, Mississippiko deltaren eta Texasen eremuan. Musikaria agertokira bakarrik ateratzen da, kanta, gitarra akustikoa, altzairuzko erresonadorea eta 12 sokako gitarra jotzen ditu, harmonikoaz gain. **JAC** Valentzian jaio zen eta Santiago de Compostelan hazi zen.

Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian Gitarra-Jazz ikasketak amaitu ondoren, musikari profesional gisa hasi zen karrera egiten.

Nazioko zein nazioarteko erreferentziako musikariekin partekatu du agertokia, eta horien artean, batez ere, Lodovic Bource (Oscar batekin eta Urrezko Globo batekin saritua) eta Jo Krause (Jazz-eko baterista ezaguna) nabarmentzen dira, zeinarekin interpretatzen baitu *"he Artist, Batiz* (Fito & Fitipaldis, Gatibu, Akelarre, etab.) filmaren soinu-banda.

Blues eta jazz jaialdi askotan parte hartu du penintsula osoan. 2015etik 2017ra bitartean, AnimalBlues taldearen buru izan zen, eta disko homonimoa editatu eta hainbat emanaldi egin zituen. 2020ko abenduan, lehen diskoa aurkeztu zuen bakarka, *Raw* izenburuarekin.



20 or Los Flamingos

SANGÜESA/ZANGOZA

VALLESANTORO JAUREGIKO LORATEGIA /
KULTURA ETXEA. 20:30



Los Flamingos Nafarroako Erriberako musikarien nahasketa eklektiko bat da. Banda elkartzten da pop-rock (Indie) proiektu bat eratzeko eta ez dute inor aho bete hortz uzten.

2015ean, banda oso soinu bereizgarriarekin sartu zen eszenan, eta, horren ondorioz, tokiko jaialdietan ehen hilabeteetatik hasi ziren agertzen.

2 Ep-ren ondoren, gaur egun Eñaut Gaztañagak (Grises – Ezpalak) ekoiztitako iraupen luzeko album bat dute, bere estudio berrian 2020ko abuztuan grabatua. Single batzuk aurreratu dizkigute; Radio 3-en entzun ahal izan dira eta 2021erako ikusmin dezente sortzen ari dira.

2020-2021eko ziurgabetasunarekin, taldeak bere proiektuaren aldeko apustua egiten jarraitzea erabaki du, orain inoiz baino gehiago, ohituta gintuzten soinuarekiko aldaketa garrantzitsu batekin.

Polifonic Sounden, Yerga Sounden, BarbaRoja PopFesten, CoolturalFesten eta beste batzuetan itxitako ekitaldiak atzeratuta gelditu dira 2021. urte ziurgabe honetan. Ez dakigu aurten nola eboluzionatuko duen kontzertuen egoerak, baina, zalantzarik gabe, iraupen luzeko lehen lanaz gozatzen ahalko dugu, baita agertokietan ere, udaberri-udako denboraldirako datak iragartzen ari baitira.



21 Lr Gandeia

ORGI (LIZASO)
ORGIKO OIHANA. 13:00

Gandeia musika-proiektu berezi eta berria aurkeztu du. Berezitasun nagusia instrumentu-prestakuntza bera da: biolinak, txistu-danbolinak eta pianoak osatutako hirukoa da, eta ziurrenik mota horretako musika-formazio bakarra izanen da. Baina bitxia eta askotarikoa da, halaber, interprete bakoitzaren musika-ibilbidea: **Yorrick Troman** paristarra musika sinfonikoaren munduan murgilduta bizi da, eta gaur egun Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren lehen concertinoa da. **Amaia Cordoba** erratzuarra Piano eta Musikologiako goi mailako tituluduna eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea da. Azkenik, **Ion Irazoki** beratarra Donostiako Udaleko Txistulari Bandako kidea da. Hiru instrumentu eta hiru

ibilbide oso desberdin, baina euskal musikaren errepertorioarekiko interesagatik elkartuta: Aita Donostia, Hilarío Olazaran Lizarrakoa, Eduardo Gorosarri, José Olaizola... Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta, batez ere, Nafarroako konpositore, melodia eta dantzak, mimoz hautatuak eta interprete berberak berariaz egokituak.

Baina dantzak ere pisu handia du bere emanaldietan, eta **Lorea Lizarreta** eta **Oihana Santxotena** arduratzen dira horretaz, horretarako berariaz sortutako koreografiekin. Proposamen freskoa eta dinamikoa, gure musikaz gozatzeko prestatua, beste latitude batzuetako melodia batzuk oso modu naturalean tartekatuz.



27 or

Ana Alcaine Luna Sefardita

LODOSA

ESPAINIA PLAZA (PASEALEKUA). 20:00

4 kontinentetan 500 kontzertu baino gehiago izanik, **Ana Alcaide** erreferentea da nazioarteko munduko musiken panoraman. Sei lan diskografiko egin ditu eta hainbat sari eta aipamen jaso, hala nola Gaztela-Mantxako *Arte Eszenikoetako Kultura-merezimenduaren Domina*. Loreena Mckenitt edo Luís Cobos artistekin aritu da elkarlanean.

Artistak Hiru Kulturaren Espainian soinu-bidaia egitera gonbidatzen gaitu. *Luna sefardita* Alinaren abestia da. Neskato horrek sefardien historia pertsonifikatzen du. Toledo atzean uzten du erbestera bidaia luze bati ekiteko. Hartara, ilargiaren aztarnak jarraituko ditu bere bilaketan eta berrelkartzean. Bere ibilera nostalgikoak zubi bat marrazten du iraganerantz, eta hainbat paisaia mediterraneotan zehar musika-paseo bat egitea proposatzen du. Kalejiraren erritmoko abestiak, ekialdeko melodiak, sefardien kondairak eta antzinako inspirazioko konposizio berriak, gaztelaniaz eta judu-gaztelanian edo 'ladino'an idatzitako letrek.

KIDIAK

Ana Alcaide: ahotsa, nyckelharpasa, biolina, atmosferak /**Rainer Seifert:** gitarak /**Bill Cooley:** salterioa, uda, santura, perkusioak

28 Lr No more blues

AZAGRA

FORU PLAZA /
AZAGRAKO TXALUPA. 21:00



Orain dela bi hamarkada hasi ginen agertokietara igotzen, betiere kontzeptu musikal berari jarraikiz: swinga, jazza, soula, bluesa, funka, R&B eta abar. Funtsean, musikari handien gaiekin zerikusia duten moldaketak, hainbat hamarkadatan arrakasta izan dutenak. Adibide batzuk aipatzearren – Blues Brothers, Eagles, Tina Turner, Joe Cocker, Christina Aguilera, Stevie Wonder, Nina Simone, Wilson Pickett, Aretha Franklin... Gure helburua mota guztietako ikusleengana iristea da, baita melomanoetara ere, dantza egiteko, kantatzeko eta, jakina, berdintsu gozatzeko.

Taldeak ehun kontzertu baino gehiago eman, besteak beste, *Versionando* (Iruñeko Udala), KULTUR (Nafarroako Gobernua) edo *La Pamplonesa Bandaren mendeurrena* omentzeko programetan, eta Hondarribiko edo Burlatako Blues jaialdietan parte hartu du.

Ordu eta erdiko kontzertu bat eskainiko dugu, azken hamarkadetako musika-gai handiez betetako udako gau batez gozatu nahi duen publiko horri harrera egiteko gogoz.

KIDEAK

Silvia Pérez de Ciriza, José Antonio Tuñón y Maite Txurruka: ahotsak /
José Navarcorena: tronpeta / **Juana Etxauri:** saxo tenorra / **Mario Fernandino:** saxo baritonoa /
Félix Elizalde: tronboi irristailuduna / **Maite Sánchez Inchausti:** teklatuak/
Fernando Laguría: perkusioa / **Iker Mateo:** gitarra / **Pablo Alday:** baxua





Iraila



Trikidantz Taldea erromeria talde bat da, Iturenen sortua, Nafarroako iparraldean. Ibilbide luzeko taldea gara, eta herri eta auzo anitzetan ibili gara, gure musikarekin jaiak eta ospakizunak animatuz eta girotuz, Euskal Herrian zein kanpoan. Horrez gain, bi disko eta zenbait kantu sortu ditugu hainbat erakunde eta festatarako. 2020ko martxoan, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz, ordurako antolatuta ginenuten ekitaldi ia guztiak eten ginenuten.

Hori horrela izanik, eta gehien gustatzen zaiguna egiten jarraitu behar dugula sentituz, 2020ko urrian *Bizitzaz Goxatu* izenburupean argitaratu genuen gure azken lana, eta orduz geroztik hainbat aldiz aurkeztu izan dugu agertokietan, hala nola Agoitzen, Tafallan, Lesakan, Burlatan, Iruritan, Donezteben eta Durangoko azokan. Etengabe errebindikatzeko ari gara kultura segurua dela eta hori lau haizetara zabaldu nahi dugu, kontzertuak ahalik eta leku gehienetan antolatuz. KULTUR programari esker Zubiri bisitatuko dugu.



3 or

Ache pa ti

AOIZ/AGOTZ

KULTURA ETXEA. 20:00

Ache Afrikako yoruba hizkuntzako hitza da, Karibe aldean erabiltzen dena. **Ache pa ti** adierazpena zorte on, oparotasun edo zoriontasun nahia litzateke, musika latindarrean oso presente dagoena. **Ache pa ti** taldea 2002. urtean sortu zen, ibilbide luzeko eta hainbat jatorritako (klasikoa, jazza, folklorea...) 5 musikari nafar elkartu zirenean, musika latinoaren zaletasunak elkartuak.

Urte hauetan euskal tradizioko melodiak eta afrokaribetarrak konbinatu eta *latin-bask* izeneko estiloan moldatu ditu. Harrigarria

da emaitza, bertako folkloreak melodia ezagunak agertu direlako txistuarekin interpretatutako erritmo latindar boteretsuekin edo Karibeko musikako gaiekin nahastuta, inprobisazio jazzistiko ugarirekin.

Emanaldi askoren ondoren, 2019an *Aunitz Urtez* CDa grabatu zuten (haren esanahia, Baztanen, Karibeko **Ache pa ti**ren antzekoa da), eta lan horren zati bat jaso zuten bertan. Hemengo eta hango gaiak ageri dira: *Tiko Otsagiko*, *Agurra* edo *Bonbolontena*, *La bikina* *Drume negrita* edo *Los tamalitos de Olga*.

KIDEAK

Fermín Goñi: txistu eta tronpeta / **Jose Ramón García**: pianoa eta moldaketak / **Jokin Zabalza**: baxu elektrikoa / **Andoni Zugasti**: conga eta perkusioa / **Dani Arias**: bateria





4 Lr

Iruña Jazz Band

TUTERA

ALFONTSO I.a BORROKALARIAREN PLAZA. 20:00

Iruña Jazz Brass Band proiektua Pamplona Jazz/Iruña Jazz elkartearen barnean sortu zen. Bertan, Nafarroako musikari gazteek ibilbide profesional sendoak dituzten beste batzuekin batera partekatzen eta ikasten dute.

Taldearen errepertorioan sartzen da musikaririk tradizionalena eta New Orleansen musikako mota horretako formazioen egungo joerak: *groovea, funka, hip-hop, soula...* Formazio hori 2018. urtearen amaieran sortu zen, eta, gaztea izan arren, jaialdi garrantzitsuetan parte hartu du, hala nola *Gasteizko 43. Jazzaldian*. Brass Band-eko tailer bat egin du, etxeko banda moduan, New Orleanseko Craig Klein tronboi-jotzaile eta kantariarekin batera (Craigek Grammy sari bat jaso du berriki The Nightcrawlers bere bandarekin batera). Berarekin batera, lehen lan diskografikoa argitaratu dute, Iruña Jazz Brass meets Craig Kleat Kloy MC. Martín Guridirekin batera eta Gasteizko Jazz Jaialdiak lagunduta, Sonora Estudios-en grabatu dute. Grabazio honek Atlantikoa zeharkatu du

eta Louisiana Music Factory-ren katalogoan dago, New Orleanseko musika-denda eta kultura-etxe garrantzitsuenetako batean.

Iruña Jazz Brass Band New Orleanseko musikako koktel tradizionala eskaintzen du, soul, rock, funk edo hip hop estiloekin. New Orleanseko gumboaren eta Nafarroako ajoarriorearen arteko nahasketa gozoa, Craig Kleinek berak sinatutako gaiekin, New Orleanseko errepertorioko klasikoekin edo taldeak egindako konposizioekin. Alaitasunez eta kolorez betetako kontzertua, arima alaitzeko.

Iruña Jazz Brass Band ere alderdi pedagogikoa lantzen du, gazteendako eta inklusiboendako kontzertu didaktikoetan eta tailerretan oinarrituta. Nafarroako Gobernu Arte Irakaskuntzen Atalak Escandaloso Xpósito rapero eta saxofonistarekin antolatutako didaktikoak egin dituzte, haur eta gazteendako tailerrak, gorrendako tailer inklusiboak La Caixa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin, eta hainbat jaialditan jardun dute, esaterako, Logroñoko *Mayo Jazzea jaialdian*, *Festival Lojoven 2019n* eta beste askotan.



La niña hilo

ARTAXOA

FORU PLAZA. 20:30

La niña hilo edo **LāNH Laura Recartek**, eta **César Bueno**, **Mercedes Bueno** eta **Rodrigo Huguet** musikariek osatutako talde nafarra da.

Lehen diskoa, *Prólogo* (2012) izenekoa, autoeditatua da eta oso harrera ona izan zuen.

Autoedizioa eta sustapen-bitartekorik eza gorabehera, elkarrizketak eta oihartzuna lortu zituen Amerikako, Espainiako, Hegoafrikako eta abarretako musikako zenbait blogetan.

Prólogo disko gogor eta rockistagoa bazen, bigarren lana, *A la espera*, 2014ko hasieran aurkeztua, askoz ere dantzagarriagoa, sintetikoagoa eta azeleratuagoa da; taldeak berak grabatu eta autoeditatu zuen, eta taldeko lagun Hans Krüger-ek (Delorean, El Columpio Asesino, etab.) nahasketak egin zituen.

Diskoak oso kritika onak jaso ditu hainbat komunikabide espezializatutatik, hala nola *Gomag*, *Mondo sonoro*, *Ruta 66*, hainbat blog eta *fanzine*. Pixkana-pixkana, gero eta zale gehiago eta oihartzun handiagoa lortu dute komunikabideetan.

Estatu osoan kontzertu ugari eman ondoren, ohiko bandarekin batera, 2016. urtearen amaieran erretiratu ziren. 2017. urte osoa hirugarren lana izanen dena prestatzen, grabatzen eta ekoizten ematen zuten. *Family* 2018ko hasieran argitaratu zen, eta disko erabat desberdina da beste biek in alderatuta, argitsua, lasaia, entzunaldi bakoitzaren ondoren aurkitzen diren alderdi eta aurpegi ugariarekin.

Gaur egun, urtebeteko geldialdiaren ondoren, pandemiagatik, 2021ean taldeak laugarren lan diskografikoa aurkeztu zuen, *Furia*, gaztelania hutsez abestua.



Esposizioa



Azken eguzkilorëa

Gua-Mia-Bu

MARGO DIGITALA

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ã

BERTIZKO JAURERRIAREN
JAUREGIA

LORATEGI BOTANIKOA
ETA ERAKUSTARETOA



AZKEN
eguzkilorëa

INAUGURAZIOA:

UZTAILAREN 2AN, 18:00ETAN

Oberena dantza

taldearen emanaldia



Azken eguzkilorea ipuin ilustratua da, Malerrekako ondare-elementuak, gure mendi, lanbidek eta tradizioetakoak, nabarmentzen dituena, eta ibilbide bat sortzen du hona bidaiatzen dutenek Nafarroako iparraldeko herriez goza dezaten.

Azken eguzkilorea erakusketan zehar ipuina sortzeko prozesuan parte hartu ahal izango dugu. Pertsonaiak sortzeko eta kolorea erabiltzeko asmoa ezagutu, baita janzkeraren eta haren inguruneen zergatia ere. Arte plastikoan, naturaren eta dantzaren arteko lotura aztertu, istorio bat kontatzeko erabili baitira. Erakusketa hau liburuaren jaiotzaren aurrekoa da, iragarri egiten du eta, azkenik, bere ibilbidean laguntzen dio.

Dantzak eta musikak KULTUR programa zabalean duten protagonismoa osatzeko, **Azken eguzkilorea** sortzeko prozesuarekin lotutako hainbat teknika plastiko garatu dira.

Dantza, gure kulturaren elementu bereizgarri gisa, erritu gisa erabiltzen da, komunitate baten parte izateko zeremonia gisa.

Erakusketa honetan, pertsonaiak eta gorputza dira protagonistak. Bertan, pertsonaiak sortzeko mugimenduen plastikotasuna agertzen da. Gorputzen adierazkortasuna harrapatzen du, eta begirada lerroetara, formara eta siluetara bideratu nahi du. Ilustrazioarekin, erraza da gelditzea, zerbait iragankorra ikusten ikastea eta gorputza protagonista gisa ikustea.

Gainera, pertsonaien diseinua janzkeraren tradizioarekin elikatzen da. Pertsonaiak nola janzten eta mugitzen diren haien nortasunaren parte da. Tradizio horrek eboluzionatu egin du gizartearekin batera, eta, horretarako, Irantzu Irigoyen, Historian eta Euskal Jantziaren espezializatutako moda-diseinatzailea, dugu mentore.

Dantza eta Ilustrazioa pertsonaien sorkuntzan elkartzen dira. Rosalía Chladekek dioen bezala, dantza egitea espazioan marraztea da. Barbara Haselbachen arabera, *marraztea arkatzez dantzatzea da*.

Gua-Mia-Buk bidai asko egin ditu: Europa (Venezia), Tunisia, Los Angeles..., eta nazioarteko artistak ezagutu ditu; haiengandik ekartzen ditu gaur egungo arte digitalaren proposamenak. Pentsa genezake nolabaiteko antza duela Pedro Ciga eta Dorotea Fernández Bertizko Jaurerriaren azken jabeen espiritu bidaiariarekin.

Lorategia txoko intimoz beteta dago; erromantikoak dira, eta lasaitasunari eta introspektzioari bide ematen diete. Gelditu eta behatu. Txoko horietako batzuetan, ilustrazioak proposatzen dira. Obra plastikoan koloreak eta emozioak eta lorategiak uztartzea da helburua. Lorategiarekin batera bizitzeko pentsatutako proiektua, lorategiari protagonismoa kendu gabe.

Erakusketak lan-prozesu intimoa eta pertsonala erakusten du. Artistaren lana da ingurua behatzea da, balioa emateko. Bertiz bi espiritu bidaiariren elkargunea da, zeinek bizitako gauza ederrekin gozatu nahi baitzuten. Ipuin bat sortzerakoan naturak eta kulturak duten balioa erakusteko, leku hoberik al da?

Abiapuntu handia izango litzateke Bidasoko Eskolako margolari ospetsuen bosgarren belaunaldi digitalerako.

Azken eguzkilorea

Gua-Mia-Bu

MARGO DIGITALA

IBILBIDE PROPOSAMENA

1

SARRERA /
INFORMAZIO-ETXOLA

Atarikoak

2

KOLOREEN PERGOLA

Eszenatokiak

Lau eszenatoki eta paisaia
errealen ilustrazio digitalak.

3

ESERLEKUA

Txoko intimoa

Hemen eser gaitzke,
ur-jauziko ura entzun eta
naturatik kopiatutako
kolore-apuntea ikusi.

4

ERAKUSKETAREN SARRERA

Pertsonaiak sortzeko prozesua

Aretora gidatzeko, pertsonaiak
sartzeko prozesua islatzen
duen lan bat dago.

5

PEDRO CIGA ERAKUSTARETOA

Pertsonaien diseinua

Mugimenduaren estudioz
(hamasei bozeto)z
osatutako instalazioa.

Hausnarketa egin dezakegu
ulertzeko dantza eta jantziak
funtsezkoak direla pertsonaiak
inspiratzeko eta sortzeko.



Biodibertsitate Zerbitzua - Nafarroako Gobernua

Espazio hori ipuineko pertsonaia
nagusien bilakaerari buruz
hitz egiteko planteatzen da:

- Pertsonaia femeninoen
hamar inpresio lanbide eta
dantza tradizionaleri buruz.
Erreferentziatzko argazkilariek,
hala nola Eulalia Abaituak,
jantziak sortzeko izan duten
eragina azaltzen da.
- Malerreakako fauna
eta florari buruzko lau
lan. Ibarraren izaera
autoktonoarekiko lotura.
- Joaldualdunen transformazio
erituen inguruko bi lan.

6

KAPERA. KANPOKO MARKESINA

Pertsonaiak sartzea: lamien inguruko típtikoa

Ipuinean, lamietako bat
bitxiiegilea da, René Lalique

Art Nouveauren mireslearen
zerbitzura; beraz, beiratea
ezinbesteko tokia da
hura omentzeko.

7 8

HAGINEN EREMUA

Pertsonaiak eta herriak

Natura, pertsonaiak eta dantza
nahasten dituzten hiru obra.
Pertsonaiak eta herriak.
Obra biziak eta sutuak.

9

PÉRGOLA DE MADERA

Photocall

Pergola 360º-tan ikusteko
instalazioa. Erakusketan
parte hartzeko photocall
moduko hondo txikia.

#Azken_eguzkilorea
#Kultur2021



#RespiraCultura
#KulturaArnastu

